# HAURRENTZAKO
# IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2025 ARTES ESCÉNICAS
# URRETXU-ZUMARRAGA

## Otsailak 16 febrero

### MURREN BIDAIA

### Behibi´S

55 min – + 5 urte/años

**Mur Afrikatik etorri zen** pateran bere familiarekin; **Txema hemen bizi da**; elkar ezagutzen dute, **elkarren lagun bihurtzen dira**, jolasean ibiltzen dira, eskolara doaz eta ongi pasatzen dute. Broderrek, ordea, **beltzekin kontuz ibili beharra dagoela** pensatzen du. Hori dela eta, Mur eta bere familiaren bizitza zailagoa egiteko gatazka egoerak sortarazten ditu. Zein zaila den dena, ez? Txemaren familiak ere ez du begi onez ikusten adiskidetasuna. Nola konplikatzen dute dena helduek, ez?

.

Mur llegó de África en patera con su familia; Txema vive aquí; se conocen, se hacen amigos, juegan, van a la escuela y se divierten. En cambio, Broder piensa que hay que tener cuidado con los negros. Y la familia de Txema tampoco ve con buenos ojos la amistad. Qué difícil es todo, ¿no? ¿Cómo lo complican todo los adultos, no?




## Martxoak 16 marzo

### POTX ETA LOTX

### LAGUNEKIN TOPA!

70 min – 0-100 urte / años

Gaur da eguna! Heldu da azkenean! Iritsi da orain arteko ibilbidea ospatzeko garaia. 2017an hasi ziren Potx eta Lotx pailazoak Euskal Herriari bira ematen. Bide horretan lagun pila bat egin dituzte eta gaurko eguna hori ospatzeko baliatuko dute. Nola, ez, zailtasunez, barrez eta tontakeriaz betetako ospakizun galanta ekarriko digute. Etorri gurekin ospatzera!!

*¡Hoy es el día! ¡Por fin ha llegado! Es el momento de celebrar todo el recorrido. Los payasos Potx y Lotx comenzaron a dar la vuelta a Euskal Herria en 2017. En ese camino han hecho un montón de amigos y dedicarán este día a celebrarlo. Cómo no, harán una celebración llena de eventos, risas y tonterías. ¡Ven a celebrarlo con nosotros!*



# HAURRENTZAKO
# IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2025 ARTES ESCÉNICAS
# URRETXU-ZUMARRAGA

## Apirilak 13 abril

### KELONIA ETA ITSASOA

### Gorakada

50 min – + 4 urte

Adiskidetasunari eta biziraupenari buruzko istorio bat da. Dortoka txikia ilargirik gabeko gau batean jaioko da, hondartzan. Bere senak argi eta garbi adieraziko dio itsasora iristeko izarren islari jarraitu behar diola uretan. Hala ere, zibilizazioaren argiekin nahastuta, hirian barneratuko da, mundu guztiz ezberdin batean.

*Una historia en forma de canción sobre la amistad y la supervivencia. La pequeña tortuga nacerá una noche sin luna, en la playa. Su instinto le indicará claramente que para llegar al mar debe seguir el reflejo de las estrellas sobre el agua. Sin embargo, confundida por las luces de la civilización, se adentrará en la ciudad, en un mundo completamente diferente.*




## Maiatzak 11 mayo

### IRITSI DA OSTIRALA!

### Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore

70 min – 0-100 urte

Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertaratutako lagunek Txapas irakaslearekin batera, bere azken laneguna igaroko dute, elkarrekin ikasitakoa ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako. Txapasekin beti da ostirala!

*Hoy es un día especial en la escuela. Porrotx, Marimotots, Pupu y Lore acompañarán a Txapas en su último día de trabajo. Es un día para celebrar todo lo que han aprendido con él y de él. No faltarán el bosque, los juegos, las manualidades, las canciones, las risas y las travesuras. ¡Con Txapas siempre es viernes!*



## Urriak 19 octubre

### ZEPO ZAPO

### Markeliñe

60 min – +5 urte

Zepo gerrara joan zen… eta han bera bezalako beste bat aurkitu zuen, baina desberdina. Bi soldadu etsai aurrez aurre. “Gaiztoa” bestea da. Bera da arrotza eta kanpotarra. Baina horrela pentsatzen dute biek. Zer egingo dugu orduan?

Keinu bidezko ikuskizuna, familientzako, edozein gerraren istorioa kontatzen duena. Beno, gerra batean protagonista direnenen istorioa. Emoziotik eta eszenaren egiatik sentsibilizatu nahi du, telediarioen pantailaren hoztasunetik erabat aldenduta.

*Zepo se fue a la guerra…Y allí se encontró con otra como ella pero distinta. Dos soldados enemigas cara a cara. La “mala” es la otra. Ella es la extraña y la extranjera. Pero así piensan las dos. ¿Qué hacemos entonces?*

*Un espectáculo gestual, para público familiar, que cuenta la historia de cualquier guerra. Bueno, de quienes son protagonistas en una. Pretende sensibilizar desde la emoción y desde la verdad de la escena, totalmente alejados de la frialdad de la pantalla de los telediarios.*



## Azaroak 16 noviembre

### AMAMA

### AUKERAN

### Dantza konpainia

50 min – + 4 urte

Amama batek ipuinak kontatzen dizkio bilobari. Euskal dantzetan oinarritutako koreografien bidez, zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin. Ipuinen irakurketarekin batera, dantza izango da ipuinen irudikapen koreografikoaren protagonista.

*La abuela cuenta unos cuentos a su nieta. A través de coreografías basadas en bailes vascos se escenificarán siete cuentos. Un cuento por cada territorio del País Vasco con diversos personajes. Junto con la lectura, la danza será la representación coreográfica de los cuentos.*



## Abenduak 14 diciembre

## OH-PERA!

## Zirko Txosko

50 min – 0-100 urte

Mundua, oinarrizko piezaz osaturik dago, eta gurea, unibertso ezberdinak sortzeko gaitasuna duten KUTXA-z beterik dago!!! ... KUTXA hauei esker, ezinezkoa den guztia, egi bihurtu daiteken mundu magiko batera bidaiatzeko aukera izango dugu. Emozio, arrisku, aukera eta ilusioaz beteriko unibertso batera. Oh-Pera-ren esentzia!

*El mundo está formado por piezas básicas, y el nuestro está lleno de CAJAS con capacidad para crear universos diferentes!!! Gracias a ellas, tendremos la oportunidad de viajar a un mundo mágico donde todo lo imposible puede hacerse realidad. Un universo lleno de emociones, riesgos, oportunidades e ilusiones. ¡La esencia de Oh-Pera!*



## Sarrerak

**Labeagako emanaldiak**
17:00
5 €

**Ederrena pilotalekukoa**
17:00
7 €

**Zazpi ikuskizunerako bonoa:**
- haurra + heldua: 30 €
- haurra: 20 €

## Bonuak

**SALGAI urtarrilaren 16tik aurrera:**

- Urtarrilaren 16tik otsailaren 14ra Aizpurunea kultur etxean:
  - Astelehenetik ostiralera:
    10:00 – 12:00 / 16:30 – 20:30
  - larunbatetan: 11:00 – 13:00

- Otsailaren 16an eta martxoaren 16an:
  Labeaga aretoan emanaldi egunetan 16.00-17:00

Urretxuko udala

ZUMARRAGAKO UDALA
ZUMARRAGA
(GIPUZKOA)